

AZKOITIAK ETA AZPEITIAK, PEÑAFLORIDAKO KONTEAREN GARAIAN

E.A.Elkartean Sarrera Ikasgaia

IMANOL ELIAS ODRIOZOLA-k

Azpeitian, 1995ko otsailaren 9an
Antxieta Kultur Etxean
irakurritako Hitzaldia

Jaun-andreak, lagunak guztiok, arratsaldeon!

Euskara, gure hizkuntza zaharra aukeratu dut, Euskalerrriaren Adiskideen Ekartean sartzeko eskatu didaten ikasgaia ezagutzera emateko, gogoan izanik Peñafloridako konteak ere bere bizitzan sarritan erabili zuela. Izan ere Urolal-deko Azkoitiko herrian jaiorik, beharrezkoa zuen euskaraz jakitea, baldin behintzat herriarekin bat eginik egoteko, bera egon zen bezala.

Zehaztasun batzuk emateko ordea, erdera ere erabiliko dut zenbait kasutan.

Ez da nire nahia, batez ere ezinezkoa delako dudan jakituarentzat, ikasgai txalogarri bat eskaintzea une pozgarri honetan. Baina iruditzen zait, Historiak, urteetan zehar suertatu diren gertakizun haundiak jasotzen baditu, beraien oinarria eguneroko bizitzan gertatu ohi diren gauza txikietan dagoela, eta beraien berri jakiteak zenbait gertakizunen xehetasunak eman dezazketela.

Horrela bada, Peñafloridako kontea, Xabier Maria Munibe eta Idiakezen bizitza gogoan izanik, 1729tik 1785era, bera bizi zen bitartean, beraren herri-tar azkoitiarrak eta auzoko azpeitiarrak zuten bizitza eta kezak agertu nahi genituzke gure lantxo honen bidez. Nolabait agertzen dutenak, zer nolako giroa aurkitu zuen behin eta berriz aipaturiko konteak.

Sarrera bezala esan behar dugu, Gipuzkoako gainontzeko herri askoren pareko, nahiko larritasunak zituztela bai Azkoitik eta bai Azpeitik, Xabier Maria Munibe jauna jaio aurrez. Bat bestearen ondoren, eskaerak egiten zituen Gipuzkoako Aldundiak, Frantziarekin zituen mugak defendatzeko eta gastu izugarriak sortzen zituzten honelako deialdiak herrietan, dirutza haundiak aurreratuz soldaduei ordaintzeko eta beraiek hornitzeko.

Frantziarrei aurre egiteko 1719an, Azkoitian eta Azpeitian prestatu ziren soldaduei, zer eratan ordaindu behar zitzairen erabakitzeko, Loiolan bildu ziren ekainaren 17an bi herrietako arduradunak, eta beraien artean Frantzisko Munibe Idiakez, Xabier Maria Muniberen aita, Azkoitiko herriaren aldetik.

Herrien aberastasuna, beraien mendietan oinarritzen zen gehien bat, egurra eta ikatza saltzen zutela alegia, beste zenbait zerga oso ahulak ateratzen zituztela ardoa, pattar eta horrelakoekin.

Herrietan behar ziren aleak inguratzeko berriz, hau da, garia eta artoa batez ere, izugarritzko langintzak egin behar izaten zituzten agintariek. Horrelako zerbait gertatzen zen baita ere Azkoitian eta Azpeitian, 1729an.

Azkoitiako Udaltzatzean, urte horretako urriaren 23an, alkatea zen Manuel Atxaranekek, Elgoibarko sendi batetan aurkitu zituela 2.000 dukatu zion, herritarren beharrei erantzuteko, eta beraietatik 3.000 errealek behintzat, ehun bat anega gari erosteko gorde behar zirela. Xabier Maria Munibe jaio zen eguna bazen ere, beraren aita Udaltzate horretan izan zen, Udalgizon bezala.

Azpeitiko Udalak ere, arazo berdinak zituen gai bezala egun horretan. Nonbaiten, gutxienez 2.000 zilarrezko dukatu aurkitzea zen beraren nahia, ahalik eta ale gehien erosteko herritarrentzat.

Azkoitia eta Azpeitia, bakoitzak bere nortasuna galdu gabe, historian zehar bide luzea eginak dira dudarik gabe elkarri eskua emanaz, eta arazoak ere antzekoak izan dituztela esan behar une askotan behintzat.

Azkoitiko herriak Udaletxe bat bazuen ere garai horretan, batzar nagusiak egiteko txikiegiak egiten zitzaion, eta zituen espetxeak ere berriz ahulegiak, batez ere kontutan izanik Gipuzkoako Korrejidoreak bertan egiten zuela ohizko txanda. Berarentzat bestalde, etxe itxurazko bat aurkitu ezinik zebilen, herriko enparantzan kokaturik, bertan ospatzen ziren jaialdiak ikusteko eran.

Esan behar dugu, herri batzarrak, herriko hospitalean egiten zirela Azkoitian behin baino gehiagotan, eta baita ere parrokiako estalpean.

Antzeko arazoak zituzten baita ere azpeitiarrak garai horretan, eta Korrejidoreari Udaletxea usten bazioten beraren txanda garaian bizitzeko, beste zenbait tokitan bildu behar izaten zuten herri batzarrak ospatzeko. Edo bestela, herritar baten etxe bat ordaindu behar Korrejidoreari eskaintzeko. Ez zuten ez da ere alde haundirik izango, herri batetan eta bestean ziren espetxe ahulak.

Azkoitian, aurrez ordea, 1730eko urtarrilaren 8an egindako Udaltzatzean, Udaletxe berri bat egiteko erabakia harturik zuten, dirutza gehiegi gastatu gabe ahal izanik eta enparantza nagusian, bertan aurkitzen zen labearen tokian. Han izango zuten bilerak egiteko aretoa, Korrejidorearentzat gelak, espetxe egokia, eta abar.

Joseph Lizardi maisuari eskatu zitzaion baita ere nahi zen Udaletxearen tankera egiteko.

Aukeraturako tokia, ez zuten egokitzen eman zenbait maisurek, adieraziz egokiena izan zitekeela une horretan zezentokiak aurkitzen ziren alderdia, inguru ziren San Millan Markesaren etxeak eskuratuz.

Beste gai bat hemen, bi herrien nolabaiteko lotura agertzen duena. Zezen-tokiak aipatu ditugu, zezenak, bi herriak zuten ohitura zahar bat jaialdirik haundienak ospatzeko.

Markesari zuzenduko zioten eskaera azkoitiar agintariok eta 1730ko irai-laren 8an egindako Udalbatzean emango zuten ezagutzera beraren erantzuna. Trukaketa egiteko prest zen Markesa eta horrela egitea erabaki zuten.

Beraien nahia aurrera zaramatela azkoitiar agintariok adierazteko, nahi-koa dela esatea iruditzen zaigu, 1731ean alde batera utzi behar izan zutela Andra Maria jaietako zezenketa, enparantza nagusia harriz beterik zelako Udaletxea egiten zenez. Berdin gertatuko zen ondorengo urtean ere, herriko jai nagusiak iristean. Ohizko zezenketaren ordea, beste zerbait antolatzea eskatzen zitzaiola alkateari.

Sagardo asko egiten zen garaian aurkitzen gara. Azpeitian eta aintzinako ohiturari jarraituz, herritarrek zuten sagardoa salgai ateratzeko, Udalbatzak erabakitzen zuen zozketa baten bidez, nortzuk hasi behar zuten eta zer eratan jarraitu behar zuten gainontzeko guztiak. Hori bai, lehentasun berezia emanaz, herriko sagarrarekin egindakoari eta urik gabekoari. Izango zuen salneurria ere, herriko agintariok erabakiko zuten.

Herritarren artean banatu behar zen suegurra markatzen zuten baita ere agintariok, beraren salneurria izendatuz.

Azpeitiarren nahia zen garai horretan, batez ere herri jaietan ospatzen ziren zezenketak ahalik eta egokien antolatzea, eta horretarako saiatzeko ziren orain enparantza nagusia bezala ezagutzen dugun tokia zabaltzen. Baita ere Harzubitik Loiolara bitarteko bidea egokitzen, edo hobeto esateko, bide berria egiten.

Berriro ere soldaduak prestazen hasi beharko zuten bi herriak 1734ko azken hilabeteetan. Gipuzkoako Aldunak eskaintza egin bai zion erregeari Donostia eta Hondarribia zainduko zituela esanaz, eta 400 soldadu beharko ziren probintzian hortarako. Eta ohizkoa zen bezala zozketa egingo zuten herritar gazte eta ezkogabeen artean.

Peñafloridako konteak bost edo sei urte zituela, hau da, 1735ean, itxura denez aurreratua zegoen Azkoitiko Udaletxe berria eta teiltua egiteko ere egur guztia prestaturik.

Baina Udaletxe zaharra saltzean eta berri bukatu bitartean, Udalbatzak egiteko tokia asko aldatu zuten azkoitiarrak. Batzutan egokia zen elizaren aterpea, besteetan alkate zegoenaren etxea, alondegiko esertokiak, eta abar.

Azkoitiar eta azpeitiar gehientsuenentzat, bizitza gogorra zela adierazten digute garaiko paperak, eta orain bezala orduan ere, asmatu beharra zegoen

zerbait dirua nonbaitetik lortzeko. Horrelako zerbaiten berri ematen digute azpeitiar agintariek 1735eko uztailaren 17an egindako Udalbatzean, esaten zaigunez:

“Confirieron sus mercedes sobre los fraudes que cometen los conductores de animales nocivos, ya sacando testimonios supuesto, ya repitiendo viajes con unos mismos animales cuya gratificación estaba ya percibida, vendiendo a otros para que con duplicidad cobren, tomando algunos por oficio el andar vagando con dichos animales, por cuyas consideraciones y otras, no paga la villa de Azcoitia gratificación alguna, y siguiendo su ejemplo, por evitar dichos desórdenes, acordaron que en adelante no se pague por la villa gratificación alguna a los que vinieren con semejantes animales”.

Ondorengo urteetan saiatuko ziren azkoitarrak, Izarraitzko Aitola eta Madariaga aldean zituzten izoztegiak zaintzen, Jausoroko zubia konpontzen, Urretxurako bidea eta herriko kaleak egokitzen.

Garai horretan zuten herriko sendagileari ere neurriak hartuko zizkieten, beraien eritziz gehiegi kobratzen zuenez baserrietako gaisoei ikustaldiak egitea. Zaldiak edukitzea aginduko zioten gainera baserrietara garaiz iritsi zedin.

Azpeitiarrak bitartean, herritik Loiolarako bidea egingo zuten, bide zaharra deiturikoa, lehen ekinaldian Belatxe baserri inguruan zen santutxora bitartean, eta handik Juanarro izeneko zubira bitartean ondoren. Orain urte batzuk desagertu zen Berdelari baserriaren inguruan altxatuko zuten baita ere beste santutxo bat.

Bestalde, ustegabeko kalte haundiak jasoko zituzten 1737ko Santu guztien egunez izan ziren uholdeekin.

Peñafloridako konteak bere aita herri-giroan sarturik izan zuenez urteetan zehar, garbi da maila haundi batetan iritsiko zitzaiola Azkoitiko gertaera askoren berri. Alde batetik, bere etxean bertan behin baino gehiagotan entzungo zuelako aitaren ahoz gertatzen zenaren berri, eta bestalde berriz, Azkoitian bizirik bere lehen 13-14 urtez, beraren erako beste zenbait herritarrekin nolabait bat eginik izan beharko zuelako.

Ez zen gehiegi aldatuko Urolaldeko bi herrien bizitza Peñafloridako konte gazteak bere ikasketak egiten Frantzian egin zituen urteetan. Probintziaren eskaerak erantzun beharko zituzten, behin eta berriz soldaduak prestatuz. Herria nolabait altxatu eta txukuntzeko, beharrezkoa egiten zitzaieten diru alderdia lortzen saiatuko ziren.

Azkoitiarrak, 1743an zuten Juan Etxeberria sendagileari ere, urtean 500 dukatu ordaindu ezinik aurkitu ziren eta 400 dukatu emateko ere larri benetan.

Azpeitiarrak, erregearen baimenarekin ardoari ezarririk zioten zergari esker konpontzen ziren nolabait. Eta herritar zenbait indianok bidalitako dirulantzei esker, parroko erretaula nagusia urreztatze lanari ekingo zioten.

Baina egia esateko, behartsuak benetan gehitu ziren garai horretan bi herrietan. Neurriak hartu behar izan zituen Azkoitiko Udalak, gehiegi zela iruditurik, behartsuak ia egunero eskean ibiltzea kaleetan zehar. Asteburuan, egun bat izendatzea erabaki zuen hortarako.

Azpeitiko agintariek 1744ko otsailaren 2an egindako Udalbatzean honela zioten:

“Habiendo introducido la caridad de algunas casas particulares de esta villa y de la de Azkoitia, su más vecina, dar limosna a los pobres en días fijos, en esta villa el viernes y en la de Azkoitia el sábado de cada semana, ha conducido la ocurrencia de tanto pobre forastero a esta limosna del viernes y la siguiente del sábado, siendo en la limosna de esta villa tan primeros los pobres de la de Azkoitia y otros lugares como en la de ella los de esta villa y otros lugares, que ha motivado a ambas repúblicas a premeditar el remedio que en ello pide”.

Benetan neurri zorrotzak hartuko ziren bi herrietan, batez ere herri ba-koitzeko behartsuei lehenasuna emateko asmoz.

Azkoitiarren ohiturak denboraldi batetan eta maila batez apurtuko zituen gertakizun bat aipatu behar dugu baita ere gure lantxo honetan. Bera bai dugu nolabait, garaiko giroa agertzen duena eta zer nolako neurriak hartzen ziren Azkoitian ezezezik beste herrietan ere, bide zuzenean ibiltzera derrigortzeko.

Jesusen Lagundiko aita Sebastian Mendiburu gogoratua hurbildu zen Azkoitira 1746ean misiolari gizan eta berak emandako aholkuak betearazi nahi izan zituen herriko Udalak.

Horrela, urte horretako uztailaren 10ean egindako Udalbatzean, esaten da:

“El alcalde Manuel Ignacio de Altuna, dijo, que se la habian hecho presentes por el Padre Sebastián Mendiburu, de la Compañía de Jesús, ministro apostólico que actualmente se halla en esta villa ejerciendo su ministerio con gran fruto de las almas, los muchos pecados e inconvenientes que traía el tamboril que concurre las mañanas de San Juan a la ermita de este santo, pues juntándose a tan deshora la juventud de ambos sexos en el atractivo de las danzas, andan en toda libertad por todas aquellas heredades, y considerando sería muy del servicio de Dios el que por evitar tantas ofensas suyas se quitase de todo el concurso del tamboril y danzas de aquel dia, ponía en consideración del ayuntamiento estas razones, para que acuerde lo conveniente. Y en vista de ellas, conformemente acordaron, que en adelante no haya el tamboril, ni haya danzas la mañana de San Juan, ni a la tarde, como ni

tampoco la víspera, para que de esta manera se quite el motivo de tantos pecados.

Y considerando también que subsisten más razones o mayores en las tres fiestas que se hacen en la ermita de los Santos Mártires, San Emeterio y Celedón, pues la estrechez del terreno que ocupa el corral, hace más inmediato el contacto de la gente de ambos sexos y da más libertad lo dilatado y soledad del camino para que la gente moza ande con menos decencia y causando bastante escándalo. Acordaron que en adelante no concurra tamboril, ni haya danzas en dicha ermita, en ninguna de las tres funciones que se celebran.

Con este motivo, el señor Joseph de Idiáquez, con su gran celo y deseo del mayor servicio de Dios, hizo presente los muchos inconvenientes que acarrea la pública y continuada salida del tamboril a la plaza, sobre que había tratado con el Padre Mendiburu, que le había manifestado sus deseos de que quitando este atractivo, dé la gente más a la virtud, y deseo del mayor bien de las almas y aumento espiritual de esta república, pedía se confiriese el punto y se tomase resolución en el punto, como también el que se reflexione sobre los malos que acarrearán las corridas de toros que se hacen todos los años. Y habiéndose tratado sobre ambos puntos, acordaron, que por las dificultades que se ofrecían, traten y comuniquen con personas doctas los señores alcalde, (eta beste zenbait zinegotzi), y acuerden cuanto les parezca conveniente, poniendo su resolución por decreto en este libro”.

Zazpi egun geroago, uztaileen 17an egindako Udaltzatzean, erabakiko zuten, Ihauterietan ere danbolina alde batera uztea, aginduz gainera, “que cuando haya de darse principio a las danzas, sea con la precaución de darse pañuelos hombres y mujeres, de manera que se evite el tacto inmediato de los dos sexos”.

Ilunabarra baino ordubete aurrez amaitu behar zuten gainera dantzaldiak, etxerako bidea ilundu aurrez egin zezaten.

San Migel egunez aukeratzen ziren agintariek irakurri beharko zituzten agindu hauek beraiek egiten zuten lehen batzarrean eta derrigorrezkoa egiten zitzaion gainera betetzea.

Baina, ez zen hor amaitzen guztia eta honela jarraitzen dio aktak:

“Que no haya corridas de toros aiales por la festividad de Nuestra Señora de la Asunción, ni con otro motivo, a menos que ocurra el extraordinario de nacimiento de Príncipe de Asturias, o algún importante favorable suceso de la Monarquía, o que ascendiendo algún hijo del lugar a empleos grandes, quiera mostrar con regocijo público su gusto y satisfacción, y que aun en este caso, no se permita de noche después del toque de las Avemarías, ninguna bulla ni alegría de colocar alguna luminaria, castillo de fuego, cohetes o porroidanzas, ni otra fiesta alguna de esta especie, por ser todas por su naturaleza ocasionadas al concurso de la juventud de ambos sexos, de donde rara vez

dejan de seguirse muchos y graves inconvenientes que se desean evitar en el modo posible”.

Itxura denez, benetan ezkutukoak beharko zuten izan maiteminduen lehen musuak garai haietan, baina ematen zirenak dudarik gabe, herriko biztanleak gehitzen joan zirenez.

Aita Mendiburu jaunak berak eskatu zion baita ere Azpeitko Udalarri 1746ean, berriz kanpo izaten ziren dantzaldiak debekatzeko, batez ere Nuarbe auzoko Trinitade jaietakoak, Eskuztako San Juan egunekoa, eta Elormendi eta Egimendiko San Pedro ermiten inguruetan ospatzen zirenak. Debekatzea erabakiko zuten gainera agintariak, herriko enparantzan izaten ziren dantzei buruz ere aginduak emanaz.

Bi herriak bide egoki batez lotu nahirik, azkoitarrak izango ziren aurrenak langintza horretan. Munategiko mugaraino egingo zuten, eta 1745eko uztailean erabakiko zuten azpeitiar agintariak, Loiolako ataritik bertara bitartean bidea egitea Urola ibaian zubia altxatuz.

Eta bat eginik altxatuko zuten baita ere 1746ean Munategiko mugan, Loiolako Inaziori eskainitako santutxoa, adierazten den bezala urte horretako irailaren 28an egindako Azpeitiko Udalbatzean, “para testimonio de la unión que reina y esperan premanezca entre las dos villas cada dia más estrecha mientras durare el mundo”.

Bere aita hiltzean 1746ean, bihurtuko zen Xabier Maria Munibe Frantziatik, eta Peñafloidako kontea bezala, Azkoitiko horriari eskainiko zizkion jakinduria eta denbora. Bere lehen urteetan gurasoek txertatu zioten herri maitasuna agertuko zuen ekintza guztietan.

Beste behin, soldadu eskaera jasoko zuten Aldundiaren aldetik Bazirudin, 1747ko uztailaren 9an azkoitiar alkateak zionez, 18 ingeles itsasuntzi borrokarako prestaturik gipuzkoar kostaldera bidean zirela eta prest egon behar aurre egiteko. Gazte ezkongabeen zerrendak egokituko zituzten Azkoitian eta Azpeitian berehala.

Eta gazteak behar baziren borrokarako, gazteak baita ere herrien gidaritzarako. Peñafloidako konte gaztea, 1747ko ekainaren 3an ezkondurik, urte horretako San Migel egunez, Azkoitiko alkate aukeratuko zuten.

Garai horretan azpeitarrak, San Agustin komentuko erretaula nagusia egin nahirik ziren, han eta hemen dirulaguntzak lortuz, herriko Udala zela bultzagile eta laguntzailerik egokiena.

Ama galduko zuen 1749an Peñafloidako konteak, baina bai gertakizun horren aurrez eta bai gero, bera bizi zen Intxausti jauregitik herriko Udaletxera bidaiia franko egingo zuen, batzar gehienetan partaide izanik urteetan zehar.

Azkoitiarrak garai horretan, Elosurako bidea konpondu nahirik ziren eta baita ere beraien frontoiari teilatu berria egiteko asmoz. Bestalde, pakea ezagutzera eman zenez, 1749ko uztailaren 20an erabaki zuten bertako agintariek, gertakizuna ospatzeko zezenketa bat antolatzea eta ohizko alardea egitea.

Borroka bukaturik bazen ere ordea, beste zenbait azkoitiar eta azpeitarrek irten beharko zuten herritik 1750ean, erregearen deialdiari erantzunez. Urte horretako abuztuan, harginak eskatu bai zituen El Ferrolen egiten ziren langintzak jarraitzeko.

Bi urte geroago, harginak ezezik zurginak ere eskatuko zituen eta erantzungo zioten bi herriak.

Azkoitiar agintariek, 1753ko martxoaren 3an erabaki zuten, Martin Joseph Ariztegi eta Peñafloidako konteari mandatua ematea, aurrez herrian zen trinketearen ordeztu frontoi bat non egin zitekeen erabakitzeko. Inazio Ibero azpeitiar maisuaren ideia eta aurrekontua emango zuten ezagutzera bi hilabete geroago, sorturik horrela gaur egun Goiko-Losa izenez ezagutzen den frontoia.

Urte horretan bertan erabakiko zuen baita ere Azkoitiko Udalak, Errukietxe bat egokitzea herriko hospitalean, herrian ziren behartsuei erantzun bat eman nahirik.

Azkoitiko Errukietxeak sortzen zituen mesedeak ikusirik, Azpeitiko agintariek 1754ko ekainaren 21ean egindako batzarrean, honela zioten:

“Trataron en razón de las Casas de Misericordia en que se recogen los pobres, que se han fabricado en varias ciudades y villas, y últimamente en la de Azcoitia, con tan provechosos efectos, así relativos al alivio de aquellos, como bien de la república donde aquellas se han erigido, y considerando la gran necesidad que hay en esta villa, por los muchos que han salido a mendigar en ella...”.

Horrela sortuko zen baita ere Azpeitian Errukietxea, urte horretako San Pedro egunez egindako Udalbatzean.

Berriro alkatetzarako aukeratuko zuten beraren herritarrek Peñafloidako kontea 1755eko irailaren 29an.

Garai horretan eskuratuko zuen baimena Frantzisko Inazio Leturiondok, herriko enparantza nagusia asko apainduko zuen bere etxe berria egiteko, aurrez toki berean zen labea betirako ezkatutuz.

Ezin dezakegu alde batera utzi, eta gutxiago oraindik gure lantxo hau euskaraz egiteko asmoa izan dugun ezkeroz, 1761eko uztailaren 5ean Azkoitiko Udalbatzaren aktak jasotzen duena:

“Dijeron, que en cuanto a las cuentas de la villa y órdenes, despachos y otros papeles que se leen en ayuntamientos, en castellano, no comprendían bien, y sobre los puntos a tratar sería mejor el que todo se hablase en Bascuence. Y a esto decretaron, que en adelante se hable Bascuence, para que pueda hablar con más satisfacción cada uno su sentir”.

Azpeitiarrak bitartean, Enparan etxetik Harzubira bitarteko bidea egingo zuten, Lamiosena izeneko zubiaren bidez Ibaiederra gaindituz. Herriak goiko sarreran zuen dorrean konponduko zuten eta baita ere bertan zen ordularia berriitu.

Peñafloridako kontearen “Gabonsariak” izeneko lana argitaratu zen urtean, hau da 1762ean, erreal laurdeneko zerga bat ardoari jartzeko baimena eskatu zioten erregeari azkoitiar agintariek, errukitzean ziren behartsuei erantzuteko.

Ordiziako Batzar Nagusietan, 1763an, Zientzi, Arte eta Merkataritza buruzko Elkarteak edo Akademia baten aurkezpena egin aurrez Peñafloridako Konteak, bere etxea egokitzeko behar zituen materialen eskaera zuzendu zuen Azkoitiko Udaletxera, eta eskaera guztiari erantzutea erabaki zuten agintariek, denen balioa ordainduz.

Gipuzkoako Batzar Nagusiak ospatzeko garaia iristean, bi herriak saiatu ohi ziren aurrez, herriak nolabait txukuntzen, batez ere kaleak, dirutza handiak gastatzen zituztela behin eta berriz. Gipuzkoako herri guztietako ordezkariak biltzen bai ziren eta beraien aurrean, gutxienez aurpegia behintzat, dotore agertu nahi izaten zen.

Azkoitian, 1764ko uztailaren 2tik 7ra ospatu ziren Batzar Nagusi horietan emango zen ezagutzera lehen aldiz, Peñafloridako kontearen “El Borracho burlado” izeneko lana.

Urte horretan bertan baita ere, Bergaran estreinatuko zuen konteak lan bera, eta sortuko zuen Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak, eta 1765ko urtearen lehen egunez, beste behin, Azkoitiko Alkatetzarako aukeratuko zuten herritarrek.

Garbi adierazten zaigu kasu honetan, bere ametsak bete nahirik zen konteak, Azkoitiako herriarekin bat eginik jarraitzen zuela, eta berak zuzentzen zuen Udalak lehenenetako Udalbatzean, herriak zuen Artxibategia zuzentzeko erabakia hartu zuen.

Baina, lurraldeak landuz jasotzen zen janaria benetan urria zen ordea garai horretan. Gehientxuena gainera, gutxiren artean zabaldurik zen bi herrietan. Askotan gertatu ohi den bezala, langileek ezertxo eskuratu ezinik aurkitzen ziren.

Nonbaiten lehertu behar zuen egoerak, eta konteak alkatetza utzi eta handik hilabete gutxira sortuko zen Matxinada deituriko iskanbila izugarria. Azkoitian eta Azpeitian borroka gogorrak sortuko ziren bi herriak, eta beraietako biztanle asko atxilotuak izango ziren baita ere.

Azkoitian, irakaskuntza mailako kalteak sortuko zituen alde batetik herriarentzat, Jesuiten egozketak 1767an. Bertako ikasle gazteak, urteetan zehar izan zuten eskola galdurik aurkituko ziren horrela eta agintariak saiatu beharko zuten beste bide batzuk jorratzen.

Bestalde ordea, azkoitiar eta azpeitiar asko gelditzen ziren langabezian, Loiolako lanak bertan behera gelditzen. Honela zioten azpeitiar agintariak urte horretako maiatzaren 3an:

“Habiendo quedado sin empleo tanto pobre oficial que no encuentra en donde trabajar...”

Langabezian, zirenei ogibidea eman nahirik erabakiko zuen Azpeitiko Udalak, parrokiaren aurrekalde berria egitea.

Ordurako, Peñafloridako konteak lorturik zituen beraren ametsak eta zabalduz zen baita ere Bergaran, Euskal Abertzale Mintegia. Beraren zuzendaria bezala jarraitzeko alde egin zuen Azkoititik eta han jarriko zen bizitzen. Dударik gabe, bere herritarren kezka eta nahien deiadarrak entzuten zituela.

Berak herrian utzitako zuloa, beste batzuk saiaturik ziren betetzen, eta behar zutenean gainera, nahikoa zuten azkoitiar agintariak berari deitzea, 1778an bezala, izendatuz ordezkari, Seguran ospatuko ziren Probintziako Batzar Nagusietarako.

Baziren bestalde, Azkoitian bertan, Peñafloridako kontearen jarraitzaileak, eta beraietako bat aurkitzen dugu 1775eko abuztuaren 6an egindako Udalbatzean.

Garaiko eskribauak gutun bat irakurri zuen, unean Azkoitian ezezik Azpeitian ere zeharo zabalduz zen abereen izurriteari buruz. Aktan bertan jasotzen da hamabi orritan zehar guztia, baina guk hemen beraren sarrera besterik ez dugu aipatuko. Honela dio:

“En ayuntamiento general, el escribano leyó un memorial de don Antonio de Carasa, médico titular y matemático matritense de la Real Academia de Madrid, y socio de los Amigos del País, a una con un escrito que presenta las observaciones físico-médicos hechos sobre la enfermedad epidémico-contagiosa del ganado vacuno. Y en su visita acordaron sus mercedes dar las debidas gracias, y que dicho escrito y memorial se estampen en el libro de decretos, para que en todo tiempo conste”.

Historian zehar izugarritzko saltoak eginez osatu dugun gure lantxo hau gehiegi luzatu gabe, esan dezagun azkenik, 1885eko urtarrilaren 13an hil zen Peñafloidako kontea bezala, bai aurrez eta bai ondoren, beste zenbait azkoitiar eta azpeitiar ezagun eta ezezagun ahalegindu direla lanean eta beraiei esker ditugula oraindik ere bi herriak bizirik. Zor haundi bat dugu guztiekien eta denak gogoratu nahi nituzke une honetan.

Une honetan, bai. Benetan pozgarria eta gogozkoa egiten zaidan une honetan.

Hainbat bider aipaturiko Peñafloidako konteak sortutako Elkartean sartzan naizen une atsegin honetan, nire bihotzari askatasun osoa emanaz, honako aitorten hau beharrean aurkitzen naiz nire lantxoaren amaitutzat emateko:

Umetan erakutsi zidaten
gauzak egoki maitatzen
eta saiatu naiz beti
erakutsiak gordetzen.
Ahalegindu naiz gogoz
orduak eskaintzen,
gure Herri zaharraren
historia ezagutzen
edo aintzinako ohiturak
nolabait zabaltzen.
Orain sari bezala
amets bat zait eskaintzen
Euskalerraren Adiskideen
Elkartean naizenez sartzan...
Baina, egiz dizuet,
benetan naiz lotzatzen.

Urteak egin ditut
kultur alderdia jorratzen,
Euskal Herria ezagutu
eta berari bultzatzen...
Baina, ez ote zaio hori
euskaldun bati tokatzen?
Ama batekin, ez ote du
semeak horrela jokatzeko?
Nolatan saiatu ez
bere bizia indartzen?
Ez dut bada nik
merezimendurik aurkitzen
Elkartean sartzeko
nautenean aukeratzen...
Eta gainera, egiz dizuet,
ez dut mailarik lortzen.

JUAN IGNACIO DE URIA ETA EPELDE-n **Harrera-hitzak**

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko Adiskide oso bezala,
Imanol Elias Odriozolaren hitzaldiari erantzunez

Jaun Andreok:
Gabon:

Alde batetik askotzan ez ohi dan gauza bat degulako gure artean, zuek badakizue noski ondo 1548 urtean, Benal Detxepare jaunak esan zuen, euskera atera behar zela kalera, plazara eta mundura. Baina mende asko igarorik, gaur oraindik horrela gabilta gauza askotan, eta esan nahi dizuet gaur behintzat pozgarri dela zergaitik gure egun hontan egiten degun hartueman hau euskeraz izango da, Peñafloridako konteak XVIII. mendean nahi izan zuen bezela eta hemen gurekin dan zuen herriko seme ospetsu eta trebe hau, Imanol Eliasek merezi duen bezela izanik izan dan gizon hori.

Eskerrikasko danoi eta gabon.

Señoras y señores:
Buenas noches:

Por otra parte tenemos entre nosotros un asunto poco frecuente, como ustedes bien saben, en el año 1548 el señor Detxepare dijo que el euskera había que sacarlo a la calle, a las plazas y al mundo. Pero a pesar de todo todavía hoy seguimos igual en muchas cosas y quiero decirles hoy que por lo menos estamos contentos porque en este nuestro día, lo que aquí hacemos, lo hacemos en euskera, como quiso el Conde de Peñaflorida en el siglo XVIII y aquí con nosotros esta el hijo predilecto de vuestro pueblo, el cual es famoso y experto, Imanol Elías.

Gracias a todos y buenas noches.

Aurrera jarraitu baino lehen jaso degu telegrama bat Lehendakartzatik esanaz zoriontzeko Imanol Elias eta beste bat Jose Maria Rondagoa ere zoriontzeko eta bukatzeko Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak bertaratuak gure estatutuetan galdatutako baldintzak betetzen dituela egiaztuta ondoren haren sede eta helburuak fidekasun eta lehialtasunez betetzeko borondatea eta konpromisuak kontuan hartuz, eta aldi berean bere ekalper sotzailea eta ikerketa onartuz adiskide osogitza izendatzea bidezko diola.

Arrera ematean zera eskatu nioke, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte hau belauan ditan bultza duten printzipio eta jarrerak ez bakarrik ahaztu ez ditzala baizik eta praktika ditzala eta arrera emateko gure konde furdatzailea izanen Xabier Maria de Munibe Peñafloredako Kondeak euskal herriaren oinuran pentsatuz eta bihotz-bihotzez hasiera itzaldian esandako hitzok gogorarik ditut eta bere hitzak orain irakurriko ditut eta hala zion:

Hemendik aurrera adiskide zintzoak, familiako aita zintzoak eta errepublikar zintzoak izatea ez da aski izango, gaur hartzen dugun lanbideak betebeharrak handigoak galdatzen ditu, orain arte gureak bakarrik izan gitezkeen aurreratzean berriz publikoarenak izan behar dugu guztiok, gure hitzaldiak haren onegintza eta oinuran oinarrituko dira eta horiek izango dira gure lanen helburu, gure hiritarkideengan bertutearekiko eta benetako jakindurekiko maitasun handia eta bizio eta ezjakintasurerekiko gorroto izugarria zortaraztea, bai eta Euskal Herriari imagina daitezkeen oinura guztiak ematea ere izango dira gure egin geharrak, baina hauek guztiak ez ditugu espekulatiboki bakarrik bultza behar praktika eta adibidearekin ere. Erronka gogorra da dudarik gabe, baina lanerako duzuen gogo eroikoak erraza izatea ahalbidetuko du Adiskideak ez ezazue bada etzi, maite ezazue herria, maite ezazue zuen guztien ospea, gizakia maite ezazue eta azkenik herriko adiskide duhinak izan zaitezte, gizaki osoaren adiskide duhinak.

Eta honeraino kondearen hitzak, eta bere jokabideak aipatutako printzipioetan egokituko duelakoan adiskide gisa Imanol Elias Odriozola jauna izendatu da, erabaki honen testigantza gisa, hona hemen baldintza hori egiaztatzen duten agiriak eta hirurak bat lema duen insignia gure elkartearen ekintza eta ospakisunetan eraman beharko duena.

Nik bihotz-bihotzez, emanten dizut domina hau, hartzeko inor baino gehiago merezi duzun bezela. Aycart jaunak gure zuzendari ospetsuak emanngo dizu diploma, idatzi berezi hori.

Antes de seguir adelante decir que hemos recibido un telegrama pidiendo que felicitemos a Imanol Elias y a José María Rondagoa.

Al darte la acogida, te diré que no sólo no olvidases lo dicho por la

RSBAP sino que lo llevases a cabo y para llevar la “acogida” diré unas palabras que dijo el Conde de Peñaforida:

De aquí en adelante el ser una buena persona y un buen cabeza de familia o un buen republicano no es suficiente. El trabajo que llevamos a cabo hoy en día es más complicado.

Hasta ahora sólo éramos para nosotros, de ahora en adelante tenemos que ser para todo el público, nuestras conferencias tienen que estar basadas en su bienestar, y ese será nuestro objetivo.

Hacer que nuestros ciudadanos sepan querer, aprender y ser honrados, y por otro lado odiar los vicios y la no sabiduría entre nuestros objetivos también están dar todo el bienestar posible a toda Euskal Herria. Pero todo esto no lo tenemos que hacer especulativamente sino que hay que llevarlo a la práctica. Es un reto difícil, pero las ganas de trabajar que tenemos lo harán posible, por ello amigos no desistáis, querer al pueblo, querer vuestra “fama”, querer al prójimo y finalmente ser ciudadanos dignos del pueblo. Y hasta aquí las palabras del Conde.

Y como seguidor de los principios que nos decía el Conde tenemos a nuestro amigo Imanol Elías Odriozola, como testigo de esta decisión, tenemos aquí unos documentos que lo verifican, y estos llevan consigo la insignia de nuestra asociación, la cual tiene el lema los “tres en uno” (*hirurak bat*).

Yo de todo corazón te doy esta medalla porque te la mereces más que nadie. El Sr. Aycart, nuestro Director, te da el diploma.